



GIDA, TEKNOLOGIA DIGITALEN ERABILERA ARDURATSUA IZATEKO kirol-erakundeetan adingabeekin

*Esaidazu eta ahaztuko dut,
Irakats iezadazu eta gogoratuko dut,
Parte hartzen utz nazazu eta ikasiko dut*

Benjamin Franklin

Gidaren erakunde sustatzaileak

Kirolaren Euskal Eskola -
Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisiko
eta Kirol Zuzendaritza

Eusko Jaurlaritzako Familia Politikarako
eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza

Arabako Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia

Egiletza

Digitalde Komunikazioa

Diseinu grafikoa eta maketazioa

Leming Diseño

Argitalpen-urtea

2017

AURKIBIDEA

1. Zergatik gida honen beharra?	4
2. Nola laguntzen dute teknologia digitalek kirol eremuan?	5
3. Zer arrisku daude?	6
4. Adingabeak ingurune digitalean	7
5. Kirol eremuko agenteak	8
6. Esparru etikoa eta jardunbide onak	10
7. Teknikarien dekalogoak	20
8. Esparru etikoa kirol erakundeetan: eman beharreko urratsak	22
9. Eranskinak	23
Terminoen glosarioa	24
Kirol-erakundearen laguntza-ereduak	26

1. ZERGATIK GIDA HONEN BEHARRA?

Gero eta konektatuago dagoen gizartean bizi gara, **Internetek eta sare sozialek** protagonismo handiagoa dute, teknologia gero eta eskuragarriagoa da eta bilakatzen jarraitzen du: **smartphonei** esker, edozein sar daiteke Interneten eta, gainera, Internetarako sarbidea duen lehen gailu mugikorra eskuratzeko **adina** jaisten doa.

Eskaintzen dituzten **abantailak** direla-eta, gailu mugikorren eta sare sozialen **erabilera** hainbat esparrutan zabaldu da, eta, argi eta garbi, **kirol**-esparruan ere bai.

Bestalde, **administrazio publikoen** ardura da teknologia digitalen erabilera arduratsua sustatzea, baita **jostaketa, aisia eta denbora** libreza zuzendutako aplikazio berrienak ere, batez ere **gazte eta nerabeen artean**.

Oso zabaldua badaude ere, baliabideak falta dira erabilera arduratsua eta segurua **ezagutzeko**, lehentasuna izan behar baitu **adingabeez** hitz egiten dugunean.

Gida honen bidez

- Erakundeetatik **esparru etikoa** eskaini eta jardunbide onak proposatu nahi dira, kirol eremuan teknologia digitalen erabilera zuzena hobetzeko.
- **Baliabide bat** eduki nahi da **erabilera arduratsua** ezagutzera emateko, sentsibilizatzeko, inplikatzeko eta errazteko.

Hauei dago zuzenduta Gida hau:

- **Kirol-erakundeak**, adingabeak baitituzte haien kideen artean. Zehazki, ardurako karguak dituztenei: zuzendaritza-batzordea, kirol-arduraduna, etab.
- **Adingabeen** edo adingabeak dituzten ekipoen ardura duten **entrenatzaileak (teknikariak)**.

2. NOLA LAGUNTZEN DUTE TEKNOLOGIA DIGITALEK KIROL EREMUAN?



Komunikazioa

- **Berehalakoa egiten dute** informazioaren trukea.
- **Oso eraginkorrak dira** mezuak **transferitzeko** pertsona bati edo batzuei.
- **Gardenagoa egiten dute** informazio gehiagora sartzea, nahasteak edo zurrumurruak saihestuz.
- Edukien **jarraipena egitea errazten dute**, dena idatzita geratzen baita eta, hortaz, kontsultagarri.



Giro ona eta taldeko kohesioa

- **Unitatea** eta taldekidearen sentimendua **sustatzen** dute.
- **Taldeko harremanak errazten dituzte**, entrenamendu eta lehiaketetatik haratago.



Ikaskuntza eta hobekuntza teknikoa

- **Prestakuntzako baliabideen** eta ariketa fisikoen transferentzia **errazten dute**.
- Ikaskuntzarako material interesgarria **bilatzea errazten dute**.
- **Aukera ematen dute** marka pertsonalak **erregistratzeko**, **jokaldiak aztertze**ko hobetzeko helburuarekin eta, oro har, **errendimendua aztertze**ko.



Motibazioa

- **Motibazioa indartzen laguntzen dute** entrenamenduetatik baino haratago.
- **Motibatze**ko baliabide asko edukitzen uzten dute.

3. ZER ARRISKU DAUDE?

Kirol-errendimenduari dagokionez

- Gailu mugikorrek gehiegi erabiltzeak **atsedena hartzeko denbora murrizten du**.
- Gailu mugikorren erabilera okerrak **kontzentrazioa eragoz dezake** egoera giltzarrietan.
- Gailu mugikorrek zuhurtziarik gabe erabiltzeak **arreta galtzea ekar dezake**, baita egoera korapilatsuak sortu ere.

Kirol-balioei dagokienez

- **Begirune falta, mehatxuak eta irainak** kideei eta aurkariei, baita epailei ere.
- Kideak **baztertzea eta jazartzea** (ziberjazarpena).
- Kirol esparrutik kanpo, **neurririk gabeko lehia** sustatzea.
- **Berdintasunik gabeko iruzkinak eta jarrerak** egitea (sexistak, arrazistak, xenofoboak, etab.).
- **Jarrera indibidualistak** eta egozentrikoak goraipatzea.

Adingabeen ohore, intimitate eta norbere irudiari dagokienez Interneten

- Kirol-erakundeak **jasotako datuak oker prozesatzea** eta ez bermatzea segurtasuna eta konfidentzialtasuna.
- Adingabeen **irudiak zabaltzea** alde zuzeneko **baimenik izan gabe**.
- **Intimitatea urratzen dituzten irudiak hartzea** (aldageletan, adibidez) eta ondoren Interneten zabaltzea (sexting-a), mehatxuak direla medio (sextortsio-a).
- **Informazio pertsonala lapurtzea edo identitatea ordeztzea** (kide baten gailu mugikorren bat eskura edukitzen baita).
- **Ezagutara ematea** beste pertsona batzuei buruzko informazioa (izen-abizenak, helbideak, telefonoa, argazkia, helbide elektronikoa, etab.).
- Teknikarien eta kirolariaren arteko **konfiantzazko harremanari aprobetxamendua** ateratzea gehiegikeriaz jokatzeko, sexuari dagokionez, batez ere.

4. ADINGABEAK

INGURUNE DIGITALEAN

Internet eta, bereziki, sare sozialak maiz erabiltzen dira; izan ere, gure bizitzan **ezinbestekotzat** jotzen ditugu, baita adingabeek ere. Gazteak **erraz sar daitezke** informazio askotara eta **harremanetan hasteko beste modu batzuk agertzen dira**. Baina, era berean, **arriskuen eraginpea** ere handitzen da.

Hortaz, **irtenbidea** erabilera egoki bideratzean datza, debekatzean baino. Adingabeek eskubidea dute haien garapenerako informazio egokia **bilatzeko, jasotzeko eta erabiltzeko**, eta arreta berezia eman behar zaio **alfabetizazio digital eta mediatikoari**. Eboluzio etapa bakoitzak jarraipena eta monitorizazioa behar du, adingabeei baimentzeko **segurtasunez eta arduraz jardutea**. Beharbada, hura inportanteagoa da informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabileratik etorritako arrisku egoerak **identifikatzeko** orduan, **aipatu arriskuei aurre egiteko eta, haietatik babesteko tresna eta estrategia** egokiak erabili ahal izateko (adin txikikoen babes juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 5. artikulua).

Hortaz, Interneteko erabilera egokian, oso inportantea da **sentsibilizazioa eta prestakuntza** edukitzea txiki-txikitatik, gidatzeko, kontzientziazteko eta arriskuei aurrea hartzeko. Ildo horretatik, funtsezko garrantzia izango dute **familia-inguruneak eta hezkuntza-inguruneak**. Baina, beste **ingurune batzuetan**, beste heldu batzuen ardurapean daude adingabeak; esate baterako, kirol-erakunde batean edo ikastetxean bertan kirola egiten denean. Jakina, gero eta gehiago **erabiltzen dira gailu mugikorrak eta sare sozialak** toki horietan.

Entrenatzaileak adingabearen babesa eta garapena zaindu behar du, praktikatzen duten kirolarekin lotutako kontzeptu taktiko eta teknikoez gain; izan ere, nabaria da ingurune digitalarekin ere harremanetan dagoela.

Ataza hura erraztera dago bideratuta Gida honek eskaintzen duen **esparru etikoa**.



5. KIROL-EREMUKO AGENTEAK

Hiru taldetan bana daitezke adingabeekin harremanetan jartzen diren, eta babesteko ardura eta beharra duten kirol-erakundeko pertsonak:

KIROL-ERAKUNDEAREN ZUZENDARITZA

Kirol-erakunde baten inguruko gertakarien arduradunak dira legezko ondorioetarako.



Erakundean lan egiten dutenak gidatzeko jarraibideak ezartzen dituzte.

Horren barruan, gailu mugikorren eta sare sozialen erabilerari dagokiona ere sartzen da, eta erakundearen funtzionamendua arautzen dituzten arauetan ere bai.

TEKNIKARIAK

Harreman zuzena dute adingabeekin, eta, hortaz, haien arduradunak dira entrenamendu, lehiaketa eta joan-etorrietan.



Adingabea gidatuko dute gailu mugikorren eta sare sozialen erabilera egokian, haien ardurapean egon bitartean.

Kirolarien jokabideak moderatu beharko dituzte konpartitzen dituzten gune digitaletan.

FAMILIAK

Kirol esparruari dagokionez, funtsezko rola betetzen dute gurasoek edo legezko tutoretza dutenek, haien seme-alabak gidatzeaz, laguntzeaz, prebenitzeaz, hezteaz eta babesteaz gain. Garrantzi handikoa da konplizitatea eta laguntza adieraztea entrenatzaileak, bereziki, eta kirol-erakundeak, oro har, ezarritako jarraibideekin.



Kirol-erakundeak (arduradunaren edo entrenatzailearen bidez) familiei jakinarazi behar dizkie eremu horretan teknologia digitalen erabilerari dagozkion arauak (beste arauei buruzko informazioa ematen duen bezala).

Gai horri dagokionez, helburua da familiak eta kirol-erakundea bat etortzea, arauak ezagutzeko eta barneratzeko asmoz, hain zuzen, taldean lan egitearen erakusgarri.



Aipatutako 3 taldeen laguntzarekin, **kirolari adingabeek** beraiek, haien eboluzio-etaparen arabera, haien burua **babesteko** erabil ditzaketen gaitasunak eskuratu ahalko dituzte, **autonomia sustatzen** lagutzen duten erantzukizunak bere gain hartuko dituzte eta, batez ere, **teknologia digitalak arduraz erabiltzen** ikasiko dute.



6. ESPARRU ETIKOA ETA JARDUNBIDE ONAK

Kirol-erakundearen esparru etikoa sortzea

Teknologia digitalen erabilera oker batzuk eta gehiegikeriak arautzen dituen **legezko araurik ez dagoenez, esparru etiko bat** proposatzen da, **zeinak orientatuko baitu nola jardun** kirol-erakunde baten inguruneko errealitate honen aurrean. Bereziki, beharrezkoa da, kirol-jarduerak, batzuetan, ez baitaude sartuta araututako hezkuntzaren barruan. Hortaz, komeni da **argi eta garbi adieraztea elkarbizitza oneko oinarrizko arau batzuk** gunen fisiko eta digitaletan.

Gutxieneko hainbat **printzipio eta balio ekartzen ditu** esparru etikoak, eta gailu mugikorren, Interneten eta sare sozialen erabilera ona bideratu behar dute kirol-erakundeak. Horregatik, **jokabide eta erabilera desegokiak arautzen ditu; halaber, jarraibideak eta murrizketak ezartzen ditu, adingabearen osotasuna babesteko eta zaintzeko helburuarekin.**

Honetaz arduratzen da kirol-erakundea, haren barruan sortutako jardueraren arduradun gisa:

- esparru etiko hau **ezartzea** maila guztietan
- **haren berri ematea** erakundeko kide guztiei
- betetzen dela **zaintzea**

Esparru etiko honek zenbait **arau, printzipio eta balio** jaso beharko ditu, **teknologia digitalen erabilera egokia** —segurua, arduratsua eta osasuntsua— **zehaztuko dituztenak**. Erabilera eta zabalkunde-mailagatik, bereziki, berehalako mezularitzaren erabileran (gaur egun, Whatsapp edo Telegram, esate baterako) eta sare sozialak (gaur egun, Facebook, Instagram, Snapchat, Twitter edo YouTube bezalako ordezkariak handienekoak).

Gida honen eranskinetan, adibide gisa, esparru etikoaren eredu bat errazten da.

Arau, printzipio eta balioak

Datu pertsonalen babesa

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legean (DBLO) ezarritakoa betetzen dela bermatu beharko du kirol-erakundeak, datu pertsonalak jasotzeari eta tratamenduari dagokienez.

Identifikatutako edo identifikatzeko moduko pertsona fisikoen gaineko edozein informazio jotzen da izaera pertsonaleko datutzat. Adibidez:

- | | |
|------------------------|-----------------------------------|
| • Izen-abizenak | • Telefono-zenbakia |
| • Posta helbidea | • Irudiak (bideoak edo argazkiak) |
| • Helbide elektronikoa | • Osasunari buruzko datuak |
| • NANA | • Eta abar |

Gida honen eranskinetan, DBLO betetzeko klausula-eredu bi daude.



Arau-esparrua

Espainiako Konstituzioak pertsonen ohorea, norberaren eta norbere familiaren intimitatea eta norbere irudia zaintzeko eskubidea jasotzen du haren **18. artikuluan, eta 1/1982 Lege Organikoak** arautzen du aipatu eskubidea. **Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak** pertsona adingabeen eskubideak ere arautzen ditu.

Bestalde, **Datu Pertsonalen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoak** (DBLO) eta aipatu legea garatzen duen erregelamendua arautzen duen **1720/2007 Errege Dekretuak** pertsona fisikoen askatasun publikoak eta oinarritzko eskubideak bermatzen eta babesten dituzte, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez.

Horregatik, kirol-erakundearen betebeharra da:

- Interesdunaren **baimena lortzea** haren datu pertsonalak tratatzeko edo lagatzeko eta, 14 urtetik beherakoen kasuan, gurasoen edo lege-ordezkarien baimena.
- Interesdunari **informatzea** eskura dituen eskubideei buruz, datuen ardura duen erakundearen identitateaz eta zuzendaritzaz, eta haiek jasotzearen helburuaz. Ulergarria izan beharko da adingabeei zuzendutako informazioa, erraz ulertu ahal izateko.
- **Bermatuko da** datu pertsonal horiek ez direla erabiliko datuak jasotzeko klausulan ezarritako helburuetarako ez diren beste helburu batzuetarako.
- **Ez argitaratzea** adingabeen irudirik ez bideorik baimenik gabe.



Zer egin kasu hauetan...

Kirol-erakundeak adingabeko kirolari gehienen baimena lortzen du irudiak haren web gunean eta sare sozialetako profiletan argitaratzeko. Nola jokatu beharko du baimenik ez duten adingabeen irudiekin?

Adingabeak (edo legezko ordezkariak, 14 urtetik beherakoa bada) ez badu baimenik ematen irudia tratatzeko, **haren argazkiak hartu eta argitaratu ahalko dira, hura identifikagarria ez bada betiere** (adibidez, bizkarreko argazkia edo aurrez aurrekoa, baina aurpegia estalita edo lausotuta).

Baimena izanda ere, **sekula ez da adingabekoen ohore eta segurtasunari kalte egingo dion argazkirik argitaratuko.**


Entrenatzaileak taldea sortu nahi du Whatsapp-en edo berehalako mezularitzako beste plataforma batean, komunikazioak kudeatzeko entrenatzen dituen adingabeekin. Nola zaindu dezake datuen babesa?

Berehalako mezularitzako taldea sortzen denean (Whatsapp edo Telegram, esate baterako), ikusgai jartzen dira hura osatzen dutenen **telefono-zenbakiak eta profilaren irudia**. Horregatik, **edozein talde sortu aurretik, beharrezkoa da baimena edukitzea eta horren berri ematea.**

Taldearen helburua informatzea bada nagusiki, datuok hobeto babestuko duen erabilera aukera daiteke, hala nola **difusio-zerrendak**: komunikazioa ez da taldean egiten, pribatua baita.

Lehiaketa baten irudi bat edo albiste bat konpartitzen da sare sozialetan. Etiketa daiteke kirolari adingabea?

Adingabearen datu pertsonalak eta egunerokoa babesteko asmoz, **ez da komeni “lagunak” edo “jarraitzaileak”** izatea sare sozialetan. Era berean, kirol-erakundeak edo hari lotutako norbaitek adingabeak dituen kirol-jarduera baten irudiak argitaratzen baditu (aldez aurreko baimenarekin), **ez da etiketatu edo aipatu behar** adingabearen profila. Ez dago zertan egin behar pertsona horiei buruzko informazio eta datuen gainesposizioerik.



Kontuz honekin:

- Adingabeen irudiak zabaltzea baimenik gabe
- Baimena badago ere, irudia edo ohorea kaltetzen dituzten irudiak argitaratzea
- Jasotako datuak oker erabiltzea eta tratatzea
- Bizitza pribatua erakusgai jartzea luzaroan
- Informazio pertsonala ezagutzera ematea

Komunikazioak

Teknologia digitalei esker **informazioa hedatzen da erraz**. Haiei esker, errezagoa da kirol-jarduerari eragindako gorabeherak komunikatzea: entrenamendu-aldaketak edo joan-etorrietan antolatzea zein familiak eramango duen ibilgailua.

Hala ere, aurrerago ikusiko dugunez, **haien erabilera okerrak kalteak ekar ditzake** adingabeari zein teknikariei.

Hura saihesteko, entrenamenduan edo lehiaketan dagoen **“aurrez aurreko” komunikazioa lehenetsi** behar da, **“sen ona” eta erabilera oneko jarraibide batzuk** aplikatuz, teknologiak erabiliz gero.



Arau-esparrua

Datuen Babesari buruzko Lege Organikoaren 13.1 artikuluan zehaztu denez, 14 urte baino gutxiago duten pertsonen kasuan, nahitatezkoa da legezko ordezkariaren esku-hartzea informazio-gizarteko zerbitzuei dagozkien izera pertsonaleko datuak erregistratu eta horien tratamendua baimendu ahal izateko (adibidez, sare sozialetan).

Ondorioz:

- **14 urtetik beherako adingabeek gurasoen edo legezko ordezkarien berriarazko baimena behar dute** mezularitza zerbitzuak, sare sozialak edota Interneteko bestelako aplikazioak erabili ahal izateko. Baimen hori gabe, ezin dituzte erabili.
- **Sare sozialek ez dute baimen hori jasotzeko baliabiderik**; hortaz, kirol-entitateak ziurtatu behar du baimen hori dagoela eta ez direla legea urratzen ari.



Zer egin kasu hauetan...

Entrenatzaileak taldea sortu nahi du Whatsapp-en ekipoa osatzen duten pertsonekin. Hala ere, 14 urtetik beherakoak dira. Zer egin dezake?

Arau-esparruan jasotzen den bezala, **14 urtetik beherakoek ezin dute erabili zerbitzu horiek, gurasoen edo legezko tutoreen alde aurreko baimena izan gabe**. Era berean, **ezin dute baimendu** talde batean sartzean gertatzen den datu pertsonalen lagapena (agerian geratzen da telefono zenbakia, profilaren irudia, etab.) Horregatik, entrenatzaileak eskatu beharko du **gurasoen edo legezko ordezkarien alde aurreko baimena**.

Hala ere, bereziki kalteberak dira adin horretan; horregatik, **gomendatzen da zuzenean komunikatzea gurasoekin eta legezko ordezkariekin**.

Dena dela, kirolariak 14 urtetik gorakoak badira, haiek beraiek eman dezakete baimena. Hala ere, etikoa da entrenatzaileak elkarrizketa pribatua edukitzea Interneten bidez, kontuan hartuz adingabeak direla?


Internetik kanpoko bizitzan bezala, entrenatzaile batek **elkarrizketa pribatua eduki dezake** jokalaria batekin sare sozialetan edo berehalako mezularitzan; baina, ezin da alde batera utzi zenbait arrisku dakartzala, adingabeak baitira. Elkarrizketa horiek **ez lirateke zabaldu beharko kirol esparrutik kanpo**, pertsona horien arteko harremana ez baita lagun artekoa.

Nolanahi ere, gomendatzen da **gurasoei eta legezko ordezkariari infomatzea** zein tresna erabiliko diren haien seme-alabekin komunikatzeko.

Entrenatzaileak entrenamendu-aldaketaren berri ematen du berehalako mezularitzako talde batean, baina taldeko guztiek ez dute irakurtzen. Nola ziurta daiteke mezua behar bezala heltzen dela?


Lehen esan bezala, berehalako mezularitzako tresnaren bat **erabiltzen bada**, teknikariak zerbaiten berri emateko edo mezuren bat transferitzeko kirolariari, **gomendagarriagoa eta eraginkorragoa da difusio-zerrendak erabiltzea, taldeak erabili beharrean**.

Gainera, erabilera-arau gisa, “OK” edo antzeko zerbait erantzuteko beharra ezartzen bada, **mezua hartzaileari heldu izanaren ziurtapena** lortuko da.



Kontuz honekin:

- Elkarrizketa pribatuak edukitzea helduaren eta adingabearen artean, kirol-harremanetik haratago
- Ez ziurtatzea mezua hartzaileari heltzen zaiola
- Gerta daiteke taldea osatzen duten guztiek ez edukitzea smartphonea



Elkarrizketa-protokoloa

Interneten, berehalako mezularitzaren edo sare sozialen bidezko elkarrizketetan, oso inportantea da **oinarrizko arauak edo elkarrizketa-protokoloa errespetatzea**, harmonia eta elkarbizitza digitalaren mesedean (“netiketa” izenez ere ezagutzen da Interneten).



Arau-esparrua

Espainiako Konstituzioaren 18. artikulua pertsonen ohorearen, intimitatearen eta irudiaren **kontrako delituak arautzen ditu**, eta komunikazioen sekreturako eskubidea ere sartzen da.

Gainera, Kode Penalak delitutzat jotzen ditu mehatxuak (169. art., II. Liburua), kalumniak edo irainak (205. art., II. Liburua), aurrez aurrekoak edo Interneten bidezkoak izan. Bide haietatik egindako jazarpenarekin lotutako delituak ere jasotzen ditu: **grooming-a, sexting-a edo ziberjazarpena**.

Horren arabera, mezularitzako zerbitzuen edo sare sozialen bidezko elkarrizketetan debekatuta daude:

- Adingabeen **intimitatearen kontrako** iruzkinak edo irudiak.
- Bide haiek erabiltzea **edozein jazarpen mota egiteko** (mehatxuak, irainak, sexu-jazarpena, txantajeak, etab.).
- **Ezagutaraztea edo zabaltzea** izaera pribatuko elkarrizketak edo edukiak.



Zer egin kasu hauetan...

Whatsapp edo Telegram-eko taldean, kirol-jarduerarekin zerikusirik ez duten edukiak konpartitzen ari dira, eta taldea gainezka dago. Nola hartuko dute eskua teknikariek?

Nahiz eta, batzuetan, Interneteko elkarrizketak entretenitzeko baino ez izan, **edukiak zerbait erantsi behar du**. Horrelakoetan, **teknikarien ardura izango da** jokabide horiek moderatzea, taldearen helburuak zeintzuk diren gogoratuz eta jarraibide batzuk ezarritik taldean konparti daitezkeen eduki-motei buruz, neurri zorrotzagoak hartu aurretik (taldea itxi, norbait kanporatu aldi baterako edo diziplinazko neurriren bat).

Galdutako partida baten ondoren, talde bateko jokalaria batzuek sare sozialetan edo Whatsapp-eko talde batean kritikatzeko dituzte taldeko beste pertsona batzuk, aurkariak edo epaileak. Nola moderatu behar ditu entrenatzaileak jokabide horiek?


Elkarrizketa guztiek **errespetua** eduki behar dute oinarritzat; hori dela eta, mintzen, erasotzen edo baztertzen duen edozein iruzkina ezabatuko edo gaitzestuko da. Batzuetan, mota horretako iruzkinak ikustea oso zaila bada ere (batez ere, sare sozialetan), **entrenatzaileak adi egon beharko du** eta, detektatuz gero, **horren ondorioz jardun** beharko du berriro ez gertatzeko.

Kirol-erakunde bereko pertsonak konpartitzen duten Interneteko talde batean, emakumea gutxiesten duten konparazio matxistak, irudi sexistak edo “memeak” erabiltzen hasten dira pertsona batzuk. Nola gaitzetsi daitezke jarrera horiek?

Beharrezkoa da **genero ikuspegia** aplikatzea elkarrizketetan edo fitxategien trukean, berdintasunezko hizkuntza erabiliz, iruzkin edo irudi matxistei edo sexistei betoa jarriz, edo sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten konparaketak ez eginez. Halaber, txiki-txikitatik balioetan hezteko da helburua, eta **genero-ikuspegia eta berdintasuna, bereziki, gai sentikorra da kirolean**.

Berehalako mezularitzako tresna batean, teknikariak ekipoarekin konpartitzen duten taldea gaizki idatzitako iruzkinez eta ortografia-akats bezalako ulertzen esaten ari direna. Horrelakoetan, esku hartu beharko da?

Ahalik eta azkarren idatzi nahi den testuinguruan askotan egon arren, inportantea da sustatzea Interneten “ondo idaztea”: esaldi osoak, laburdura egokiak, ortografia-akatsik gabe, emotikono gehigi ez erabiltzea, etab. Helburua bikoitza da, batetik, mezuaren hartzailari ulermena eta irakurketa erraztea, eta, bestetik, adingabeen hezkuntza eta alfabetatze zuzena zaintzea.



Kontuz honekin:

- Edozein motatako bereizkeriak onartzea (genero, arraza, sexu-joera edo aniztasun, arrazoi fisiko eta abarrengatik)
- Elkarrizketa garrantzitsuetan, kasu ez egitea egon daitezkeen interferentziei edo gaizki-ulertuei
- Ez jardutea egoera iraingarrien edo jazarpen-egoeren aurrean

Erabilera-arauak

Kirola praktikatzen duten adingabe gehienek **smartphonea edo beste gailu mugikor mota batzuk erabiltzen dituzte egunero**, eta leku guztietara eramaten dituzte, entrenamendu eta lehiaketetara barne.

Horrek zenbait kalte sor ditzake adingabeei zein ekipoari (taldeko kirola bada); horregatik, beharrezkotzat jotzen da **gailu horien erabilera “arautzea”**. Arau horietako batzuk ezarrita daude aplikatu daitekeen legerian bertan, esate baterako, gailu mugikorraren erabilera aldageletan; edo kirol-erakundeak berak beharrezkotzat ezarritako arauak izan daitezke. Gainerako arauetarako, adingabeek ere parte hartzeko **negoziazio edo itun bat proposatzen da**.

Horrela, arauak onar edo bazter ditzakete, eta, hala badagokie, beste aukera batzuk proposa ditzakete **akordioetara heltzeko** asmoz eta bi alderdiek sinatutako “adostasun” batera lortzeko, zeinak gailu mugikorraren erabilera arautuko duen.

Gida honen eranskinetan, adibide gisa, itun digital baten eredua errazten da.



Arau-esparrua

Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legeak jokabidearekin lotutako mendetasunak eragindako kalteetatik hirugarren pertsonak babesteko jarduerak arautzen ditu; besteak beste, mendetasuna sortzen duen gailu mugikorraren erabilera; gainera, arreta berezia emango zaie adingabe eta gazteei. Kirol-erakundeak ere sartzan dira lege horretan, erkidegoaren eremuko prebentzioaren agente gisa.

Gainera, tokiko arauak daude **gailu mugikorraren erabilera kirol-instalazioetan arautzeko**.

Bestalde, **Konstituzioaren 18. artikulua** pertsonen intimitaterako eta komunikazioen sekreturako eskubidea arautzen du, eta honek entrenatzaileek adingabekoen mugikorrak **aztertzea** eragozten du.

Hortaz, hauxe hartu behar da kontuan:

- Kirol-erakundea edo, hala badagokie, kirol eremuko helduak **mendetasuna sortzen duten gailu mugikorraren erabileraz arduratuko dira adingabeak babesteko**, eta jokabide horiek prebenitzen parte hartuko dute.
- **Ezin da erabili gailu mugikorrik aldageletan**, kirol-instalazioetan haien erabilera arautzen dituzten arauetan berariazko debekua badago.
- **Adingabeen mugikorrak ezin dira aztertu**, justifikatu daitezkeen egoera larrietan izan ezik eta beti adingabeen aurretiko baimenarekin, edota gurasoen edo legezko ordezkarien baimenarekin 14 urte baino gutxiago badituzte.



Zer egin kasu hauetan...

Hain zuzen, berehalako mezularitzaren ezaugarria da zuzena izatea eta denbora errealean gertatzea; hori kontuan hartuta, erabiltzeko ordutegiak ezarri beharko lirateke?

Berehalako mezularitzako tresnetan zein sare sozialetako txatetan, gomendagarria da **erabilera ordutegiak mugatzea**. Ez da egokia entrenatzaile batek mezua bidaltzea eskolako ordutegian, esate baterako; izan ere, adingabeak ez lukete jaso beharko une horretan. Gauean, komeni da mugako ordu bat ezartzea (22:00ak arte, esate baterako), gaueko atsedenaldian ez eragiteko.

Kirol-erakunde askotan, arau batek debekatzen du gailu mugikorren erabilera aldageletan. Horrelako araurik ez badago, kirol-erakundeak onartu behar du guneko horietan gailu horiek erabiltzea?

Arau orokor gisa, **telefono mugikorraren erabilera murriztu behar da aldageletan**, norberaren intimitatea errespetatu behar baita toki horretan, baita gainerako pertsonena ere; horrez gain, guneko garrantzitsua eta “babestua” da taldearentzat. **Gailu mugikorrak gordeta eta itzalita egon beharko lirateke** guneko horietan. Horrela, ez da gertatuko erabilera desegokirik.

Onar daiteke kirolariek gailu mugikorra eramatea entrenamenduan edo lehiaketan?

Kirol batzuetan, smartphonea gainean eramatea kaltegarria ez izateaz gain, osagarria ere izan daiteke, app-ak erabiliz gero (running, mendi-kirolak edo txirrindularitza, esate baterako). Hala ere, **kirol gehienetan bakarrik eragin dezake arreta galtzea**; hortaz, salbuespenak salbu, **motxila edo aldageletan geratuko dira gailu horiek**.

Lehiaketa baten aurreko joan-etorrietan, onar daiteke gailu mugikorrak erabiltzea?

Kontzentrazioa behar duten uneak dira eta, taldeko kiroletan, talde-espirtua sustatzeko aproposak dira. Hura kontuan hartuta, komeni da adingabeekin adostea **zein salbuespenetan erabili ahal izango dira gailu horiek**, joan-etorri luzeetan, esate baterako.

Etiket kanpo gau bat edo batzuk pasatzen diren kontzentrazioetan, heldurik ez dagoen logeletan, nola kontrola daiteke gailu mugikorren erabilera?

Adingabeek gailu mugikorren erabilera desegokia egin ez dezaten (Interneten nabigatzea, bideo-jokoetara jolastea edo beste erabilera ezegokiak gaueko ordu txikietan), **erabilera mugatzea adostu ahalko da ordu batzuetatik aurrera edo egoera konkretu batzuetan (afaldu ostean, argiak itzaltzerakoan, etab.)**

Adingabeek neurri hauek onartu eta errespetatu ditzaten, **hoberena kontzientziaztea eta beraengan konfidantza izatea da**. Beti neurriaren jatorria eta izango dituen abantailak azaldu behar zaizkie.

Teknikari edo kirol-erakundeko kideren batek zain dezake gailua aurreko kasuetan ikusitako egoeretan?


Aparteko egoeretan bakarrik eta zehapen-modura edozein arau ez betetzeagatik, entrenatzaileak aukera dezake gailu mugikorra zaintzea, baldintza hauetan, betiere:

- **Lehenago jakinaraztea** eta adingabearen beraren alde aurreko baimena lortzea, eta, 14 urte beteta ez baditu, gurasoena edo legezko ordezkariarena. Halaber, jakin behar dute zein ordutan adingabeek ez dute edukiko gailu mugikorra.
- Gailu mugikorrak **itzalita egon** beharko du.
- Garatutako **jarduera bukatu eta gero itzuliko da beti** (entrenamendua, lehiaketa, joan-etorriak), edo gaueko zaintzetan, goizeko lehen orduan.

Entrenatzaileak gailu mugikorra azter dezake inoiz?

Arau orokor gisa, **ezin du egin. Aparteko egoeretan** bakarrik eta **jokabide-falta oso astunak dagoelako susmoa egonez gero**, hura egin dezake, baina derrigorrezko jarraibide hauen arabera:

- **Aldez aurretik informatzea eta kirolariaren baimenarekin edo**, 14 urtetik beherako bada, gurasoena edo legezko ordezkariarena.
- **Adingabearen aurrean** beti eta, ahal bada, kirol-erakundearen arduradun baten aurrean.



Kontuz honekin:

- Ez jardutea kirolarien kontzentrazioa galtzea ekar ditzaketen abusuen aurrean, lehiaketa edo entrenamenduari begira
- Ez identifikatzea mendetasunak edo “hiperkonexio-egoerak”
- Aldageletan, ez aurreikustea konpromesuzko irudiak egitea eta zabaltzeko arriskua

7. TEKNIKARIEN DEKALOGOA



1

Ez izan “laguna” sare sozialetan

Ez utzi lagunak edo jarratzaileak izaten, zure sare sozialetako kontuetan, kirola egiten duten adingabeei. Ez da beharrezkoa zure bizitza pribatua erakusgai jartzea zure lagun-taldekoak edo senideak ez direnei. Era berean, ez da etikoa adingabe baten bizitza pribatuko irudi edo beste elementu batzuetara sarbidea izatea.



2

Ez jarri harremanetan 14 urtetik beherako adingabeekin

Ez eduki elkarrizketa pribatuak sare sozialetan edo berehalako mezularitzako aplikazioetan 14 urtetik beherako adingabeekin; izan ere, teoriarik, ez dute baimenik erabiltzeko gurasoen onarpenik gabe. Hortaz, beharrezkoa dela uste baduzu, pentsatu aita-amekin hitz egitea.



3

Erabili difusio-zerrendak

Erabili difusio-zerrendak, taldeak erabili beharrean, komunikazioaren helburua adingabeari edo haren familiari zerbaiten berri ematea soilik bada. Horrela, arazoak saihestu daitezke, esate baterako, hirugarren batzuei datuak erakustea (telefono-zenbakiak, izena eta profilaren argazkia) edo garrantzirik gabeko elkarrizketak.



4

Berrikusi zure profilen pribatutasuna

Berrikusi eta zuzen konfiguratu zure sareetako profilen pribatutasun aukerak. Lehen esan bezala, ez da beharrezkoa zure bizitza pribatua erakusgai jartzea ezezagunei. Zure ardurapeko adingabeei ere animatu hori egiten, sare sozialen erabilera kaskarrak sortutako zenbait arrisku saihes baitaitezke.



5

Ez utzi inor alde batera

Ez utzi inor komunikazioetatik kanpo, erabili behar duzun tresna ez edukitzeagatik. Beste bide bat bila dezakezu komunikazioak hartzaile guztiei heltzeko.



6

Ez argitaratu irudirik baimenik gabe

Ez zabaldu adingabeen irudirik edo bideorik baimenik gabe. Eduki baduzu ere, zuhurra izan gaitzesposizioarekin. Ez etiketatu edo konpartitu haien datu pertsonalak zure harreman-sareko pertsonekin.



7

**Bilatu gurasoen
konplizitatea**

Entrenatzen dituzun adingabeen gurasoak zure aliatu handienak dira, kontuan hartu haien laguntza eta konplizitatea. Haiek dira adingabeekin denbora gehien pasatzen dutenak eta haien arduradun nagusienak. Hitz egin haiekin eta lortu inplikatzeko haien seme-alabek gailu mugikor eta sare sozialekin egiten duten erabileran, asko lagunduko dizu eta.



8

**Probetxua atera
teknologia digitalari**

Aprobetxatu teknologia digitalek eskaintzen dituzten aukerak. Abantaila asko lor ditzakegu bai entrenatzailearen zereginetarako, baita teknika edo taktika hobetzeko ere.



9

Begiratu eta jardun

Zaindu eta jardun; horretarako, moderatu zure ekipoa Interneten bidez dauden komunikazioak. Adingabeekin konpartitzen baduzu sareko komunikazio-espazioen bat, moderatu behar duzu: kudeatu jokabide desegokiak, entrenamenduan egingo zenuen bezala adibidez.




10

**Adostasun batera heldu,
ez debekatu**

Adostu adingabearekin erabilera arauak. Saiatu bat-etortze batera heltzen, bai smartphonearen erabilera zenbait espaziotan murrizteko orduan, bai sare sozialen edo berehalako mezularitzaren erabilerarekin lotutako arauak aplikatzeko orduan, kirola praktikatzen duten adingabeek uler eta onar ditzaten ezartzen diren murrizketak.

8. KIROL ERAKUNDEAREN ESPARRU ETIKOA: EMAN BEHARREKO URRATSAK



9. ERANSKINAK

1. eranskina: Terminoen glosarioa

Jarraian, Gida honetan erabilitako hainbat termino jasotzen dira glosario honetan, hura garatzean bakoitzari ematen zaion esanahia ulertzen laguntzeko asmoarekin.

2. eranskina: Kirol-erakundeen laguntza-ereduak

Kirol-erakundeek baliatu ahal dituzten eredu batzuk proposatzen dira, Gida honetako zenbait orientabide implementatzeko. Eredu horiek erreferentzia bat baino ez dira, entitate bakoitzak bere izaerari egoki ditzan, komenigarria den testua gehituz, aldatuz edo ezabatuz.

1. Klausulen ereduak DBLO legea betetzeko

2. Kirol-erakundeentzako esparru etikoaren ereduak

3. Teknikarien eta kirolari adingabeen arteko itun digitalaren ereduak



1. eranskina: Terminoen glosarioa

-A-

Adingabearen autonomia: Adingabearen gaitasuna da bere kabuz erabakitze eta hartutako erabakien erantzukizuna hartzeko, nortasunaren garapen askeari lagunduz.

-B-

Berehalako mezularitza: Denbora errealean, komunikatzeko modua da bi pertsonaren edo gehiagoren artean. Gaur egun, erabateko iraultzea izan du aplikazio mugikor, plataforma anitzeko aplikazio eta funtzionatzeko aplikaziorik behar ez dituzten web zerbitzuetara. Hauek dira bereziki inportanteenak: Facebook messenger, Skype, Line, Hangouts, Telegram eta Whatsapp.

-D-

Difusio-zerrenda: Gordeta dagoen hartzaile-zerrenda da. Zerrenda hori erabiltzen baduzu, hartzaile berdinei bidali ahal diezu banan-banan aukeratu beharrik izan gabe. Difusio-zerrendaren eginkizunaren bidez, mezuak batera bidal diezazkiokezu zenbait kontakturi.

-E-

Esparru etikoa: Etikaren ikuspuntutik, jokabide kodea edo jokatzeko modua da. Hainbat arau, printzipio eta balio jasotzen ditu, horretan atxikitako pertsonak gobernatuko dituztenak.

Etiketatzeari: Sare sozialetan, argitalpen bat lotzea profil edo pertsona bati, harekin berarekin lotutako edukia dela adierazteko asmoz, haren interesekoa jotzeagatik edo bertan egoteagatik.

-G-

Gailu mugikorra: Tamaina txikiko tresna da, prozesatzeko zenbait gaitasun ditu, sare bati etengabeko edo aldizkako konexioa du, memoria mugatua, espezifikoki eginkizun baterako diseinatuta dago, baina beste eginkizun orokor batzuk eduki ditzake.

Genero-ikuspegia: Genero-ikuspegia aztertzeke parametro bat bezala hartuta, ikuspegiaren begiradak eragina zehazten du edozein alderdi edo egoerari buruz.

-H-

Hiperkonexioa: Erreferentzia egiten dio etengabe konektatuta egoteari Internetera, sare sozialetan, informazioa bilatzen, hitz egiten txat batean, edo baita online jolasten ere.

-I-

Irakaskuntza edo prestakuntza “arautua”: Ikastetxe publiko eta pribatuetan ematen dena da (unibertsitateak, prestakuntzako akademia ofizialak), zuzenean, urrutitik (e-Learning) edo modu mistoan (blended). Emaizta horren bidez, ikasketa-balio ofiziala emango zaio ikasleari.

Itun digitala: Adingabearen/en eta haren entrenatzailearen arteko akordioa da; haren bidez, kirol eremuan teknologia digitalekin duten harremana arautzen da.

-J-

Jardunbide onak: Emaizta positiboa duten ekintza gomendagarriak gauzaten dituzten kasu praktikoak dira, zeinak adibide- eta inspirazio-iturri izan baitaitezke beste egoera batzuetan aplikatzeko antzeko emaitzak lortze aldera, eta arazo errealei irtenbidea ekar diezaiekete.

-K-

Kirol-erakundea: Edozein kirol-erakunde, klub, federazio, kirol-elkarte anonimo, fundazio, baita ikastetxeak ere, eta horien guraso-elkarteak ere bai.

-N-

Netiketa: Interneten jokabide orokorreko arau-multzoa da, erabiltzaileek beraiek bultzatuta, komunikazioari segurtasun eta gizatasun gehiago emateko. Interneten erabili beharreko protokoloa deskribatzen du.

-S-

Smartphonea: “Telefono adimenduna” gaitasun handiagoko telefono mugikorra da datuak biltzeko, jarduerak burutzeko eta Interneten bidez nabigatzeko edo hura erabiltzeko; miniordenagailu baten antzekoa da eta ohiko telefono mugikorrak baino konektibitate gehiago du.

-T-

Teknologia digitala: Aurrekoei lotutako gailu teknologikoak eta plataformak dira, zeinak komunikaziorako eta informazioa izateko erabiltzen diren. Teknologia horien adibideak dira gailu mugikorrak, APPak (mugikorraren aplikazioak), sare sozialak edo berehalako mezularitzako plataformak.

-Z-

Zuzendaritza batzordea: Kirol-erakunde baten arduradunak dira legezko ondorioetarako.

2. eranskina: Kirol-erakundeen laguntza-ereduak

Klausulen ereduak DBLO legea betetzeko

1- Informazio- eta onarpen-klausula datu pertsonalak erabiltzeko, lagatzeko eta tratatzeko

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak dioena betetzeko, jakinarazten dizugu emango dizkiguzun datuak sartuko eta tratatuko direla Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan inskribaturik dauden fitxategietan, **ERAKUNDEAREN IZENA** -ren titulartasunpean, gure erakundeak eskaintzen dituen zerbitzuak eman ahal izateko asmoz, baita informazioa emateko kirol-erakundearen jarduerari buruzko kontuez ere.

Hauetk dira datu pertsonalak jasotzeko eta tratatzeko helburuak:

- 1. arrazoia
- 2. arrazoia
- 3. arrazoia

Dokumentu hau sinatzean, berariazko baimena ematen duzu **ERAKUNDEAREN IZENA** -k erabil ahal izan ditzan zuk emandako datuak helburu zehatz horretarako. Eta konpromisoa hartzen du emandako datu pertsonalak konfidentziasunez tratatzeko eta informazio hori ez komunikatzeko edo lagatzeko hirugarren batzuei edo beste entitate mota bati zure baimenik gabe.

Bete bakarrik 14 urte edo gehiago badituzu

IZENA

ABIZENAK

NANa

14 urte baino gutxiago izatekotan

LEGEZKO ORDEZKARIAREN IZENA ETA ABIZENAK -k **NAN ZK** **NAN** zenbakiarekin, eta beste gurasoaren baimenarekin, **ADINGABEAREN IZEN-ABIZENAK** -en ordezkari gisa.

Era berean, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurkatzeko eskubideak baliatzeko aukera duzula mezu elektronikoz:

ERAKUNDEAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA

ERAKUNDEAREN POSTA HELBIDEA

, edo honi zuzendutako gutunaz:
; horrekin batera, NANaren kopia gehituko da.

.....-n 20..... ko.....-aren-a

Sinatua

2- Baimen-klausula kirolari adingabeen irudiak lortzeko eta Interneten erabiltzeko

Baliabide digital berriak erabiltzen ditugu gure kirol-erakundearen jardueraren berri emateko eta zabaltzeko, eta gure adingabeen irudiak baliabide horietan lortzeko eta argitaratzeko aukera dago. Halaber, Espainiako Konstituzioaren 18. artikulua norberaren irudia edukitzeko-eskubidea aitortzen du, eta Ohorea, norberaren eta norbere familiaren intimitatea eta norbere irudia zaintzeari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Legeak eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak arautzen dute.

Hortaz, -ren zuzendaritzak irudiak argitaratu ahal izateko baimena eskatzen die 14 urtetik gorakoei, edo gurasoei edo legeko tutoretza dutenei, baldin eta adin horretara heldu ez badira. Irudi horiek, -n zehar eta erakundeko adingabeak banaka zein taldean agertzen badira, kiroleko edo erakundearen ingurunearekin lotutako elkarbizitzako-jarduera desberdinei buruz informatzeko asmoarekin soilik argitaratuko dira.

Irudi horien tratamenduari dagokionez, baldintza hauek bermatzen ditu:

- Irudiak hartu aurretik, jakinarazteko konpromisoa, aldez aurreko baimena behar ez denean ere, adingabea argi identifikatzea uzten ez duten irudi orokorrak izatearren.
- Baimena ezeztatzeko edo hartutako irudiren batean ez agertzeko eskubidea.
- Kirol-erakundeak, irudiak zabaldu aurretik, berrikusteko konpromisoa.
- Ez zabaltzea osperako apalgarriak, umiliagarriak eta kaltegarriak, edo eragindako edozein pertsonaren interesen kontrakoak gerta daitezkeen irudiak, nahiz eta adingabearen edo legeko ordezkarien aldez aurreko baimena egon (Adin txikikoen babes juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoa).
- Gerorako tratamenduari kontra egiteko eskubidea edo hartutako irudiak zabaltzeari.

14 urtetik gorako kirolaria

IZEN-ABIZENAK _____ -k NAN zk _____ NAN zenbakiarekin
baimena ematen diot entitate honi: ERAKUNDEAREN IZENA _____

14 urtetik beherako kirolaria

IZEN-ABIZENAK _____ -k NAN zk _____ NAN zenbakiarekin,
eta beste gurasoaren baimenarekin, ADINGABEAREN IZEN-ABIZENAK _____ -en ordezkari gisa
baimena ematen diot ERAKUNDEAREN IZENA _____ -ri

kirol-jardueretan eta jarduera osagarrietan lortutako irudiak erabiltzera erakundearen ordezkaritzan, eta
hemen argitaratuko dira:

- Klubeko webgunea BAIMENA EMATEN DUT ☐ EZ DUT BAIMENIK EMATEN ☐
- Sare sozialetako plataformak BAIMENA EMATEN DUT ☐ EZ DUT BAIMENIK EMATEN ☐
- Beste argitalpen batzuetarako bideoak edo argazkiak
BAIMENA EMATEN DUT ☐ EZ DUT BAIMENIK EMATEN ☐

.....-n 20..... ko.....-aren-a

Sinatua

Kirol-erakundeentzako esparru etikoaren eredua

1. Atarikoa

ERAKUNDEAREN IZENA

kirol-erakundeak gure erakundeko adingabeen integritatea zaintzeko eta babesteko konpromisoa duenez eta etikaren balio eta printzipioek arautzen dituen kodea jasotzeko helburua duenez, hemen azaltzen dugun esparru etikoa sortu du gure erakundearen jarduera-eremuan teknologia digitalak erabiltzeko.

Erakundeko pertsona guztiek edo erakundeari lotutako guztiek berretsiko dute esparru etikoa eta, horretarako, barruan zein kanpoan ezartzeko eta zabaltzeko ardura hartuko du erakundearen zuzendaritzak.

2. Jardun eremu hauetan aplikatzen da

Gure erakundearen jardun eremuarekin lotutako jarduera guztietan aplikatuko da hemen jasotako esparru etikoa, erakundearen ordezkaritzan kirolariek kirol-lehiaketetan edo entrenamendu ofizialetan edo lagun artekoetan parte hartzen, baita erakundeak antolatutako ekitaldiak antolatzen ere.

Joan-etorriak, kontzentrazioak edo gure erakundeak antolatutako edozein jarduera mota, lurraldeko federazioak edo beste erakunde batzuk ere sartzen dira, baldin eta parte hartzen badute **ERAKUNDEAREN IZENA** erakundearen ordezkaritzan.

Edonola, erakundeari lotutako pertsona guztiak hartzen ditu esparru etiko honek, zuzendaritzakoak, teknikariak edo kirol-langileak eta kirolariak izan.

3. Printzipio eta balio etikoak

Erakundeari lotutako pertsonak beti bete behar dituzte esparru etiko honek jasotzen dituen alderdi guztiak, zeinek printzipio eta balio hauek sustatuko baitituzte:

- Babesa, pertsonen (batez ere adingabeak badira) eta ordezkatzeko den erakundearen irudiari eta interesei aplikatuko zaie.
- Errespetua, edozeni edo edozein talderi.
- Bakoitzaren edo kolektiboaren duintasuna babestea, baita kirolarena berarena ere oro har.
- Osotasuna, kode etikoarekin koherenteak ez diren ekintzak edo jarrerak ez egiteko. Jarrera akatsgabea eta ereduzko jokabidea edukitzea.
- Aukera berdintasuna eta arraza, genero, jatorri, erlijio, sexu-joera edo iritzia eragindako diskriminazioaren aurkako borroka.

Aipatutako printzipio eta balioekin lotuta, hemen azalduko dira arau etikoak aplikatzeko hainbat eremu:

3.1 Informazio pertsonalaren erabilera

- ONARTZEN DA kirolarien datuak jasotzea, betiere datuok beharrezkoak badira kirol-erakundearen jardueretan parte hartzeko. Gainera, nahitaezkoa izango da aurretiaz jakinaraztea eskabidearen arrazoia eta, horretarako, baimena ematea.
- ONARTZEN DA kirolari adingabeen izenak Interneten erabiltzea, betiere onespena sinatu bada.
- EZ DA ONARTZEN adingabearen informazio pertsonala ezagutzera ematea haren onespenerik gabe, edo legeko tutorearen onespenerik gabe, 14 urtetik beherakoa bada.
- EZ DA ONARTZEN beharrezkoak ez diren datuak argitaratzea (adibidez, jaiotze-eguna, altuera, nazionalitatea edo pisua).

3.2 Gailu mugikorrak erabiltzea

- Gailu mugikorra ERABIL DAITEKE entrenamendu edo lehiaketetatik kanpoko kirol-jarduerarekin lotutako zenbait egoeratan, kontzentrazio edo joan-etorri luzeetan, esate baterako. Aipatu bi kasuetan, gomendagarria da erabilera arautzea, denbora eta ordutegiei dagokienez.
- EZIN DA gailu mugikorra erabili aldageletan, pertsonen intimitatea babesteko helburuarekin.
- EZIN DA gailu mugikorra eraman kirola egin bitartean, lehiaketa edo entrenamendua izan, salbu praktikatzen den kirol-motak adierazitako salbuespenetan.

3.3 Berehalako mezularitza eta sare sozialen erabilera

- Arduraz ERABIL DAITEZKE, kirol eremuan, tresna digital horiek, betiere, kirol-erakundeak adierazitako arau etikoak errespetatzen badira (adingabeen adina, ordutegiak, elkarrizketa-protokoloa, etab.).
- Entrenamendu edo lehiaketen irudiak edo bideoak egin eta konpartitu DAITEZKE, barruan erabiltzeko edo sare sozialetan zabaltzeko, betiere, adingabeek onartzen badute eta irizpide etikoak betetzen badira (irudi-motak errespetatuz, gainesposizioa saihestuz, etab.). Onarpenik ez badago, adingabearen aurpegia estali daiteke ezagutzeko aukerarik ez emateko.

- Tresna digitalak ERABIL DAITEZKE erakundearen jarduera zabaltzeko (emaitzen berri eman, kirol-albisteak, etab.), betiere esparru etikoa errespetatzen bada.
- EZ DIRA ERABILI BEHAR sare sozialak edo beste tresna digital batzuk iraintzeko, kalumniatzeko, iseka egiteko edo beste edozein errespetu-falta egiteko beste pertsona batzuei (kideak, teknikariak, aurkariak, epaileak, etab.).
- EZ DIRA zabaltzeko BEHAR irudi konprometituak edo desagokiak, pertsonen edo kirol-erakundearen irudia kaltetzen badute.

4. Eginkizunak eta betebeharrak

Kirol-erakundea osatzen duten pertsona guztien ardura eta betebeharra da aipatu esparru etikoa ezagutzea, errespetatzea eta praktikara eramatea, baita zabaltzea eta betetzen dela zaintzea.

Kirol-erakundearen arau etiko orokorreaz gain, osatzen duten pertsona bakoitzak haien eginkizunetan errespetatu eta aplikatu beharko du jokabide-kode hau:

4.1 Erakundearen zuzendaritzaren jokabide kodea

3. puntuan aipaturiko printzipio eta balioez gain, erakundearen zuzendaritza osatzen dutenei hau eskatuko zaie:

- eredu izatea tresna digitalen erabileran, erakundearen esparru etikoaren jarraibide guztiak errespetatuz.
- teknikarien malgutasunean eta konfiantzan sinestea, kirolariek lor ditzaketen akordioei dagokienez, esparru etikoa ezeztatzen ez badute betiere.
- inpartzialak izatea esparru etikoa betetzen ez duten jarrera edo jokabideren bat zigortzean edo aurpegiratzean.

4.2 Teknikarien jokabide kodea

3. puntuan aipaturiko printzipio eta balioez gain, hau eskatuko zaie entrenatzaileei:

- sare sozialetan, kirolarien lagunak izaten saiestuko dute, eta ez dute haien sare-profila jarraituko.
- ez dute edukiko elkarrizketa pribaturik berehalako mezularitzaren eta sare sozialen bidez 14tik beherako adingabeekin, eta salbuespenez egiten bada, guraso edo legezko tutoreari jakinarazi beharko diote.

- ez dute taldeko inor baztertuko baliabide horien bidez komunikatzen direnean. Horretarako, beste bide batzuk erabiliko ditu.
- adingabeekin edukiko dituzten Interneten bidezko elkarrizketek ez dituzte gaindituko kirol-harremanaren mugak.
- tresna digitalen erabileran, kirolari adingabeen akordioak errespetatu beharko dituzte.

4.3 Kirolari adingabeen jokabide kodea

3. puntuan aipaturiko printzipio eta balioez gain, hau eskatuko zaie kirolariei:

- sare sozialetan, ez dute jarraituko edo ez dute bidaliko lagun eskaerarik haien entrenatzaileei, ezta kirol-erakundearekin lotutako beste edozein helduri (zuzendaritzako pertsonak, koordinaziokoak, kirolarien gurasoak, etab.).
- ez dute bidaliko mezu publiko zein pribaturik, haren edukiagatik entrenatzailea konprometitzen badu.
- entrenatzailearekin adostuko dituzten tresna digitalen erabilerari buruzko akordioak errespetatuko dituzte.

4.4 Kirolari adingabeen senideen jokabide kodea

3. puntuan aipaturiko printzipio eta balioez gain, hau eskatuko zaie kirolari adingabeen familiei:

- tresna digitalen bidez ez dira harremanetan jarriko haien senide kirolariaren kideekin.
- entrenatzaileen lana errespetatuko dute, eta ez dute baliabide hauek erabiliko kolektibo horren kontrako presio-mota baterako.
- adingabearen autonomia errespetatuko dute.

5. Kode etikoa ez betetzea

Kode etikoa ez betetzeak kirol-zigorra edo zehapen ekonomikoa ekar dezake, eta, hala badagokio, arau-hauslea erakundetik aldi baterako edo betiko botatzea ekar dezake.

Kirol-erakundearen zuzendaritzaz gain, entrenatzailea, kirol eremuko arduraduna denez, egoki deritzon neurriak har ditzake ez betetzea zigortzeko, koherentzia- eta proportzionaltasun-printzipioarekin bat, betiere.

Hauk dira teknikariek har ditzaketen edo zuzendaritzatik har daitezkeen neurri batzuk:

- Kirol-zigorrak: ekipo edo klub baten arau batzuk betetzen ez direnean bezala, kirol-zigorrak aurreikusi ahalko dira tresna digitalekin lotutako arauak betetzen ez diren kasuetan.
- Elkarrizketa-talde bat ixtea: tresna digitalen bateko elkarrizketa-taldearen moderatzaile gisa, entrenatzaileak talde hori ixteko neurria har dezake kirolarien jokabide desegoki bati erantzuteko.
- Gailu mugikorra zaintzea: aparteko neurri gisa, teknikariak edo arduradunak aukera dezake gailu mugikorra zaintzea entrenamenduan edo lehiaketan, joan-etorrietan edo gauean kontzentrazioetan. Neurri hori hartuko da soilik adingabearen alde aurreko baimenarekin, eta, 14 urtetik beherakoa bada, legezko ordezkarien baimenarekin. Edonola ere, alde aurretik argi informatuko da neurri horren gorabehera eta helburuari buruz. Halaber, jakin beharko dute zein ordutan ez duten edukiko gailu mugikorra adingabeek. Gailu mugikorrak itzalita egon beharko du zaintzan egon bitartean, eta garatutako jarduera bukatu eta gero itzuliko da beti (entrenamendua, lehiaketa, joan-etorriak), edo gaueko zaintzetan, goizeko lehen orduan.

Kirol-erakundeko norbaitek arau etikoak ez betetzeaz gain, delitu izan daitezkeen ekintza larriren bat egiten badu (ciberbullyinga edo sextinga bezalako jazarpenak, identitatea ordezte, etab.) Ertzaintzaren delitu informatikoen unitatearen aurrean eta Adingabeen Fiskaltzari jakinaraziko zaio, ezikusi egin gabe.

Teknikarien eta kirolari adingabeen arteko itun digitalaren eredua

Gure erakundeetan kirola egiteari dedikatutako denboran, kirolariaren eta teknikarien arteko itun digitala proposatzen da gailu mugikorren eta sare sozialen erabilera arduratsua ziurtatzeko helburuarekin. Bi alderdiek bete beharreko arau batzuk daude akordio honen aurretik. Hona hemen:

- Ez dugu gailu mugikorrik erabiliko aldageletan, gure eta gainerakoen intimitatea babesteko helburuarekin.
- Ez dugu ez kontsultatuko, ezta erabiliko ere, smartphonea edo beste edozein gailu mugikorra entrenamenduan edo lehiaketaren batean.
- Interneten bidezko elkarriketetan, ez dugu errespetua galduko, ezta iraindu ere ez, eta ez dugu inolaz ere inor gutxietuko.
- Ez ditugu sare sozialak bozgoragailu gisa erabiliko gezurrak sortzeko, ezta errespetua galtzeko ere aurkari, epaile, zale, eta abarrei.
- Ez dugu konpartituko, ez eta argitaratuko ere, kideen argazkirik haien baimenik gabe.
-

Itun honen bidez, behean sinatzen dutenek konpromiso hau hartzen dute:

- Ez diogu elkarri jarraituko sare sozialetan, ezta “konektatzeko” eskaerarik bidaliko ere.

ONARTZEN DUT ☐ EZ DUT ONARTZEN ☐

Salbuespenak:

- Kirol kontuetaz baino ez dugu hitz egingo (edo ekipo edo kirol-jarduerarekin lotutako jarduerari zuzenean eraginez gero) mezularitzako zerbitzuen edo sare sozialen bidezko elkarriketetan.

ONARTZEN DUT ☐ EZ DUT ONARTZEN ☐

Salbuespenak:

- Ez ditugu taldetik kanpo zabalduko eremu pribatuko elkarrizketak edo edukiak.

ONARTZEN DUT ☐ EZ DUT ONARTZEN ☐

Salbuespenak:

- Ez dugu inor baztertuko taldearekin lotutako elkarrizketetatik.

ONARTZEN DUT ☐ EZ DUT ONARTZEN ☐

Salbuespenak:

- Hizkuntza zuzen erabiliko dugu eta ortografia zainduko dugu idatzizko elkarrizketetan (ez dugu erabiliko laburdura edo emotikono gehiegi)

ONARTZEN DUT ☐ EZ DUT ONARTZEN ☐

Salbuespenak:

- Eskola ordutegian edo irakas-denboran, ez dugu mezurik trukatu, ezta-etatik (p.m.) aurrera.

ONARTZEN DUT ☐ EZ DUT ONARTZEN ☐

Salbuespenak:

- Lehiaketen joan-etorrietan, gailu mugikorrek erabili ahalko ditugu bakarrik bidaia ordu baino gehiagokoa bada.

ONARTZEN DUT ☐ EZ DUT ONARTZEN ☐

Salbuespenak:

Itun hau balioduna izango da soilik interesa duten bi alderdiek dokumentu hau sinatu eta gero. Hori gertatu arte, ezin izango dugu erabili ez gailu mugikorrik ez sare sozialik, kirol eremuko komunikazioetarako.

.....-n 20..... ko.....-aren-a

Sinadura (entrenatzailea)

Sinadura (kirolaria)

116111

Adingabea bazara edo laguntza behar duten
adingabeak ezagutzen badituzu, deitu!

Si eres menor o conoces a menores
que necesitan ayuda ¡llama!

Zeuk esan

www.euskadi.eus/zeukesan

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



116111 Zeuk Esan Eusko Jaurlaritzaren telefono-zerbitzua eta zerbitzu telematikoa da adingabeak laguntzeko.

Doako zerbitzu anonimoa da, zeinak aholkularitza, orientazioa eta informazioa eskaintzen dien hurrei eta nerabeei nagusiki. Helduen kontsultei ere erantzuten die, adingabeen ongizateari buruzko gaiei buruzko orientazioa behar badute.

Zure ardurapeco adingabeak badituzu eta sarean babesteko orientazioa behar baduzu, deitu eta artatuko zaitugu.

Adingabeak dituen kirol-talde baten arduraduna bazara eta telefono mugikorraren erabilera murriztuko duen arau bat ezarri nahi baduzu, baina ez dakizu harekin haien eskubideak urratzen dituzun, deitu eta informazioa emango dizugu.